

Urtarrilaren 28ra arte luzatzen da A-636 Beasain-Bergara errepideko bidesariari buruzko aurrez aurreko zerbitzua



Zerbitzuaren helburua erabiltzaileek Abiatu gailua aurrez aurre eskatu ahal izatea da.

2022ko urtarrilean, Beasain eta Bergara artean A-636 autobia erabiltzeagatik kanon bat kobratzea indarrean sartuko da. Honen aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiak informazio-kanpaina bat abiarazi zuen gipuzkoar guztientzat eta, bereziki, Beasain-Bergara autobidetik gertu dauden eta teleordainketako gailurik ez duten biztanleentzat. Kanpainaren helburua erabiltzaileek Abiatu gailua aurrez aurre eskatu ahal izatea edo beren ibilgailuaren matrikula banku-txartel batekin lotzea izan da.

Kanpaina urriaren 25etik abenduaren 15era iraun du eta herriz herri ibili diren Bidegiko arreta zerbitzukoek 1.500 herritar artatu dituzte. Hauetatik 730ek Abiaturen eskaera bertan eskatu dute, beste 70ek autoaren matrikula kreditu txartelari atxikitzea aukeratu dute eta besteek informazioa etxera eraman dute. Izandako erantzun ona medio eta jasotako deien aurrean Foru Aldundiak, Bidegiren batera, Goierri, Urola Garaia eta Deba Goienako herrietan antolatutako aurrez aurreko zerbitzua luzatzea erabaki du. Zerbitzuaren egutegi berria abenduaren 20an hasten da Ezkio-Itsason eta Urtarrilaren 28an amaituko da Legazpin. Udalerrietan aurrez aurreko zerbitzua non eta noiz egongo diren egutegia hau da:

- **EZKIO-ITSASO.** Udaletxean. Abenduak 20. Urtarrilak 11
- **ORMAIZTEGI.** Gizarte etxean. Abenduak 21. Urtarrilak 12.
- **ZUMARRAGA.** Zelai Arizti kultur etxean. Abenduak 22-23. Urtarrilak 13-14-27.
- **BEASAIN.** Udaletxean. Abenduak 27. Urtarrilak 17.
- **LEGAZPI.** Udaletxean. Abenduak 28-29. Urtarrilak 18-21-28.
- **BERGARA.** Ondartzan (AP-1) goizez eta Udaletxean arratsaldean. Abenduak 30. Urtarrilak 19
- **URRETXU.** Udaletxean. Urtarrilak 3-4-24-25.
- **ANTZUOLA.** Udaletxean. Urtarrilak 10-26.



Aurrez aurreko zerbitzuaren ordutegia: Goizez 9:30-13:30. Arratsaldez 16:00-20:00

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauaren arabera, ibilgailu motordun guztiei eragingo die kanonak, motozikletei izan ezik. Kanonaren helburua da azpiegitura erabiltzen duenari helaraztea gure ahalmen handiko errepideek behar dituzten eraikuntza-, kontserbazio- eta kudeaketa-kostu handiak berreskuratzeko lana.

A-636 Tarifak

IBILBIDEA	ABIATURIK GABE	ABIATUREKIN (Deskontu progresiboak, gutxienez 6 joan-etorri hilean)		
		1-8 TRANSITO 25%	9-20 TRANSITO 55%	21 TRANSITOTIK AURRERA 75%
Beasain-Ormaiztegi	0,38€	0,28€	0,17€	0,09€
Ormaiztegi-Zumarraga	0,74€	0,55€	0,33€	0,18€
Legazpi/Urretxu-Bergara	1,41€	1,06€	0,63€	0,35
Legazpi/Urretxu-Antzuola	0,48€	0,36€	0,22€	0,12€

Tag Abiaturen eskaera edo matrikula banku-txartel bati lotzea bide telematikoz egin daiteke Bidegiren webgunean (www.bidegi.eus) edo aurrez aurre Aritzetako Bezeroaren Arreta Zerbitzuan (izen bereko zerbitzugunean, GI-20 errepidean, 14,800 KP).

Zarautz, 2021/12/17

Ampliado hasta el 28 de enero el servicio de atención presencial sobre el peaje de la A-636 Beasain-Bergara



El objetivo es que los usuarios puedan solicitar de forma presencial el dispositivo Abiatu.

En enero de 2022 entrará en vigor el cobro de un canon por el uso de la autovía A-636 entre Beasain y Bergara. Ante esto la Diputación Foral de Gipuzkoa puso en marcha una campaña informativa dirigida a todos los guipuzcoanos y guipuzcoanas y, en especial, a los vecinos y vecinas de las poblaciones cercanas a la autovía Beasain-Bergara que no posean ningún dispositivo de telepeaje. El objetivo de la campaña ha sido que los usuarios puedan solicitar el dispositivo Abiatu de forma presencial o vincular la matrícula de su vehículo con una tarjeta bancaria.

La campaña ha durado del 25 de octubre al 15 de diciembre y los servicios de atención presencial de Bidegi han atendido a 1.500 personas en los municipios del Goierri, Alto Urola y Alto Deba en los que han estado. De ellos, 730 han solicitado la solicitud de Abiatu en el mismo momento, otros 70 han optado por vincular la matrícula del coche a la tarjeta de crédito y otros se han llevado la información a casa. La buena respuesta y las llamadas recibidas han llevado a la Diputación Foral, junto con Bidegi, a prorrogar el servicio de atención presencial. El nuevo calendario del servicio comienza el 20 de diciembre en Ezkio-Itsaso y finalizará el 28 de enero en Legazpi. El nuevo calendario del servicio presencial en los municipios es el siguiente:

- **EZKIO-ITSASO.** Ayuntamiento. 20 de diciembre. 11 de enero.
- **ORMAIZTEGI.** Gizarte etxea. 21 de diciembre. 12 de enero.
- **ZUMARRAGA.** Zelai Arizti kultur etxea. 22-23 de diciembre. 13-14-27 de enero.
- **BEASAIN.** Ayuntamiento. 27 de diciembre. 17 de enero.



- **LEGAZPI.** Ayuntamiento. 28-29 de diciembre. 18-21-28 de enero.
- **BERGARA.** Ondartza (AP-1) por las mañanas y en el ayuntamiento por las tardes. 30 de diciembre. 19 de enero.
- **URRETXU.** Ayuntamiento. 3-4-24-25 de enero.
- **ANTZUOLA.** Ayuntamiento. 10-26 de enero.

Horario del servicio de atención presencial: 9:30-13:30 y 16:30-20:00.

El canon afectará a todos los vehículos a motor excepto motocicletas, conforme a la Norma Foral 4/2020 de 6 de noviembre aprobada por las Juntas Generales de Gipuzkoa, y tiene como objetivo trasladar a quien utilice la infraestructura la recuperación de los importantes costes de construcción, conservación y gestión que requieren nuestras carreteras de gran capacidad.

Tarifas A-636

RECORRIDO	SIN ABIATU	CON ABIATU (Descuentos progresivos con un mínimo de 6 tránsitos/mes)		
		1-8 TRÁNSITOS 25%	9-20 TRÁNSITOS 55%	DESDE EL TRÁNSITO 21 75%
Beasain-Ormaiztegi	0,38€	0,28€	0,17€	0,09€
Ormaiztegi-Zumarraga	0,74€	0,55€	0,33€	0,18€
Legazpi/Urretxu-Bergara	1,41€	1,06€	0,63€	0,35
Legazpi/Urretxu-Antzuola	0,48€	0,36€	0,22€	0,12€

La solicitud del TAG Abiatu o la asociación de la matrícula a una tarjeta bancaria se puede hacer vía telemática en la web de Bidegi www.bidegi.eus o de modo presencial en el Servicio de Atención al Cliente de Aritzeta situado en el área de servicio del mismo nombre en la carretera GI-20 pk 14,800 de Usurbil.

Zarautz, 2021/12/17